

RCxAe Sarearen urteko Topaketan parte hartu zuten hautetsiek sinatu beharreko testua, eta/edo Elikaduraren Nazioarteko Egunaren karira¹, Udaletan aurkeztuko diren mozioen testua.

Valladolideko Adierazpena, tokiko nekazaritzako elikagaien sistemak arrisku globalen aitzinean bultzatzeko

Behean sinatu dugun pertsona guztiok Agroekologiaren aldeko Hirien Sareari atxiki diren udalerrien ordezkari instituzionalak gara eta Valladoliden bildu gara, 2020ko urriaren 1ean, Sarearen IV. Topaketaren harira, eta tokiko elikadura sistema jasangarriak sustatu eta indartzeko gure konpromisoa berretsi nahi dugu arrisku globalen aitzinean ekiteko. Arrisku horien artean, larrialdi klimatikoa edo pandemiak ditugu, eta azken horien artean, adibidez, COVID-19 gaitzak eragindakoa.

Horrenbertzez,

AINTZAT HARTURIK:

Elikadura sistemek klima aldaketaren eta ingurumenaren degradazioaren bultzatzaile nagusiak izaten segitzen dutela, eta elkarren arteko lotura argiak daudela gure osasunaren, ekosistemen, banaketa-kateen, kontsumo-jarraibideen eta planetaren mugen artean, Europako Batzordeak *Etxaldetik Mahaira Estrategian* (2020) aitortu duen bezalaxe, eta kontuan harturik bizitzaren jasangarritasuna ekonomiaren erdigunean premiaz jartzea eskatzen duten konponbide bateratuak badaudela;

Aintzat harturik, halaber, mundu zabaleko osasun krisiak eta krisi ekologikoak neurri handiagoan eragiten dietela gizarte talde kalteberenei, babesgabetuenei eta pobreei, eta elikadura arloko segurtasunik eza areagotzen dutela;

Aintzat harturik, orobat, elikadura sistemen ikuspegia funtsezkoa dela arrisku globalak ulertzeko eta haien aurka ekiteko. Izan ere, kalkuluen arabera, sistema horiek berotegi-efektuko gas isuri guztien %21-37 eragiten dituzte gaur egun (IPCC 2019), bi arrazoi direla medio: batetik, pandemiak lotura dutelako gaitzak animaliangandik gizakiengana transmititzearekin (COVID-19ak eragindakoa, kasu), eta bertzetik, ekosistemen gainean gero eta presio global handiagoa egiten delako;

Aintzat harturik agroekologiak funtsezko eginkizuna duela *Garapen Jasangarrirako Agenda 2030eko* Garapen Jasangarrirako Helburuak lortze aldera, Nazio Batuen Erakundeak 2015ean planteatu bezala; funtsezko eginkizuna ere elikadura eta nutrizio arloko segurtasuna tokikotik globalera indartzeko, Munduko Elikadura Segurtasunerako Batzordeak *Ikuspegi agroekologikoak eta bertze ikuspegi berritzaile batzuk* (2019) txostenean aitortu bezalaxe; eta funtsezko eginkizuna, finean, naturaren eta ekonomiaren arteko harreman orekatua berreskuratzeko, Europako Batzordeak 2020an aurkeztutako *Etxaldetik Mahaira eta Biodibertsitatea 2030* estrategiek proposatzen duten bezala;

Eta aintzat harturik, halaber, tokiko administrazioek duten lidergoa nekazaritzako elikagaien sistemetan jasangarritasunerantz jotzeko, hainbat ekimenetan bildua dagoenarekin bat, hots, *Hiriko Elikadura Politikei buruzko Milango Ituna* (Milan, 2015), *Hiri Agenda Berria* (Quito, 2018) eta *Good Food Cities* adierazpena, C-40 Sareak bultzatua (2019).

¹ 2020ko urriaren 16a

ADITZERA EMATEN DUTE:

Tokian tokiko elikadura politikak funtsezko eginkizuna bete behar dutela gure komunitateak indartzeko eta, horrela, krisiei aurre egiteko; dela, adibidez, COVID-19ak eragindako krisiari, dela larrialdi klimatikoaren ondorioei.

Osasunak eta jasangarritasun ekologikoak eskutik helduta joan behar dutela beti pertsonen eta haien komunitateen ongizatea eta segurtasuna bere osoan sustatzeko. Horren haritik, sustatzen ditugun elikadura politikak ezinbertzekoak dira elikadura nutritiboa eta kalitatezkoa herritar guztien eskura paratzea ahalbidetzeko.

Tokiko elikagai jasangarriak ekoiztea eta banatzea oinarritzko sistematzat jo behar dira gure hiri eta herriak hornitzeko, ur eta energia sistemen pare.

Hori guztia dela eta, **behean sinatu dugun pertsonok, gure udalerrien ordezkari instituzionalak garen aldetik, berezko ekintzak epe laburrean garatzeko konpromisoa hartzen dugu tokiko elikadura sistema jasangarriak arrisku globalen aitzinean sustatzeko, betiere honako esparruotan lehentasunez:**

1. Elikadura sistema jasangarriak eta erresilienteak: molde jasangarriak sustatzea elikagaiak ekoiztu, eraldatu, banatu eta kontsumitzeko, agroekologiarekin bat, betiere hiri-lurraldeen eta landa-lurraldeen arteko egituraketan eta lankidetzan oinarriturik.

2. Lurralde-plangintza: nekazaritza-lurzoruak eta bertzelako elikadura baliabideak babestea (ura, ezagutza agroekologikoak, biodibertsitate landua), azpiegitura urdin eta berderako sarearen osagai baitira; eta hiri-planeamendu orokorrean behar diren tresnak txertatzea nekazaritza arloko tokiko elikagai jasangarrien ekoizpena, eraldaketa eta banaketa babestu eta sustatzeko.

3. Elikadurarako eskubidea: elikagai jasangarri, osasungarri, kalitatezko eta bidezkoak eskuratzeko aukera ziurtatzea gizarte talde guztiei; kalteberenei, bereziki, Nazio Batuen Erakundeak Elikadura eta Nekazaritzarako (2005) sustatu dituen borondatezko jarraibideekin bat.

4. Aktibazio komunitarioa: elikadura krisien kudeaketa hobetzen eta konponbideak ematen ari diren tokiko gizarte eragileen eta elkarte-sarearen eginkizuna indartzea, betiere berrikuntzan, jasangarritasunean eta erresilientzian oinarritutako sinergiak ezarrita.

5. Gobernantza ona: politika publiko guztien arteko koherentzia sustatzea arrisku globalak kudeatzeko, krisiaren iturburuak epe luzera indartuko dituzten irtenbideak aukeratu gabe.

Ekintza horiek Agroekologiaren aldeko Hirien Sarearen inguruan egituraturik dauden bertze toki entitate batzuekin lankidetzan eta koordinaturik egingen dira, eta Sareak lagundurik, betiere. Ekintzak garatzeko erreferentzia operatiboa txosten honetan dago bildua: *Nekazaritza arloko tokiko elikadura sistemak arrisku globalen aitzinean; Covid-19tik krisi klimatikora*, 2020ko urriaren 1ean aurkeztua, Agroekologiaren aldeko Hirien Sarearen urteko IV. Topaketaren baitan.

Guk ordezkutzen ditugun tokiko gobernuek aipatu txostenean bildutako proposamenak epe laburrean abiarazteko konpromisoa hartzen dute, betiere sinatu diren bertze akordio, adierazpen eta itunekin bat; Milango Itunarekin bat, bereziki.

Texto para firmar por parte de los cargos electos presentes en el Encuentro anual de la RCxAe, y/o de las mociones a presentar en los Aytos en torno al Día Mundial de la Alimentación²

Declaración de Valladolid para el impulso de los sistemas agroalimentarios locales frente a los riesgos globales

Reunidas en Valladolid, a 1 de octubre de 2020, las personas abajo firmantes, representantes institucionales de los municipios adheridos a la Red de Ciudades por la Agroecología, reunidas con motivo de su IV Encuentro, reafirmamos nuestro compromiso de promover y reforzar los sistemas alimentarios locales y sostenibles frente a riesgos globales, como la emergencia climática o pandemias como la originada por el COVID-19,

CONSIDERANDO:

Que los sistemas alimentarios siguen siendo uno de los principales impulsores del cambio climático y la degradación del medio ambiente y que existen claras interrelaciones entre nuestra salud, ecosistemas, cadenas de distribución, patrones de consumo y límites planetarios, tal y como reconoce la Comisión Europea en la *Estrategia de la Granja a la Mesa* (2020), y presentan también soluciones convergentes, que requieren poner con urgencia la sostenibilidad de la vida en el centro de la economía;

que los recientes episodios de crisis sanitarias y ecológicas globales inciden en mayor medida en los grupos sociales más vulnerables, desprotegidos y desfavorecidos, y suponen un elevado incremento de la inseguridad alimentaria;

que la perspectiva de sistemas alimentarios resulta central para entender y actuar frente a riesgos globales, porque se estima que estos sistemas aportan actualmente del 21-37% de las emisiones globales de Gases de Efecto Invernadero (IPCC 2019), por la vinculación de pandemias como la originada por el COVID-19 con la transmisión de enfermedades desde los animales hasta los seres humanos, y por la creciente presión global sobre los ecosistemas;

el papel central de la agroecología en la consecución de los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la *Agenda 2030 sobre el desarrollo sostenible* (2015) tal y como plantea la Organización de las Naciones Unidas; en el refuerzo de la seguridad alimentaria y nutricional, de lo local a lo global, como reconoce el Comité de Seguridad Alimentaria Mundial en su informe *Enfoques agroecológicos y otros enfoques innovadores* (2019); y en la recuperación de una relación equilibrada entre naturaleza y economía, como proponen las *estrategias de la Granja a la Mesa y de Biodiversidad 2030* presentadas por la Comisión Europea (2020);

el liderazgo de las administraciones locales en las transiciones hacia la sostenibilidad en los sistemas agroalimentarios, recogido en el *Pacto de Milán sobre Políticas Alimentarias Urbanas* (Milán, 2015), la *Nueva Agenda Urbana* (Quito, 2018) y la declaración *Good Food Cities* impulsada por la Red C-40 (2019).

MANIFIESTAN:

Que las políticas alimentarias locales han de jugar un papel central para fortalecer nuestras comunidades frente a crisis como la de la COVID-19 o ante los efectos de la emergencia climática.

² 16 de octubre de 2020

Que salud y sostenibilidad ecológica han de ser inseparables de cara a promover, de forma integral, el bienestar y la seguridad de las personas y sus comunidades. En este sentido, las políticas alimentarias que promovemos resultan imprescindibles para posibilitar una alimentación nutritiva y de calidad de toda la población.

Que la producción y distribución de alimentos locales y sostenibles han de ser considerados un sistema básico para el abastecimiento de nuestras ciudades y pueblos, de importancia equiparable a los de agua o energía.

Por todo ello, **las personas abajo firmantes, como representantes institucionales de nuestros municipios, nos comprometemos a desarrollar, en el corto plazo, acciones específicas para la promoción de sistemas alimentarios locales sostenibles frente a riesgos globales, en los siguientes ámbitos prioritarios:**

1. Sistemas alimentarios sostenibles y resilientes: promover formas sostenibles en la producción, transformación, distribución y consumo de alimentos, en línea con la agroecología y desde la articulación y cooperación entre territorios urbanos y rurales.

2. Planificación territorial: proteger los suelos agrarios y otros recursos alimentarios (agua, conocimientos agroecológicos, biodiversidad cultivada) como parte de las redes de infraestructura azul y verde; e incorporar en el planeamiento general urbano instrumentos para la protección y el fomento de la producción, transformación y distribución agroalimentarias locales y sostenibles.

3. Derecho a la alimentación: asegurar el acceso a alimentos sostenibles, saludables, de calidad y justos a todos los grupos sociales, y especialmente a los más vulnerables, en sintonía con las directrices voluntarias promovidas por la Organización de las Naciones Unidas para la Alimentación y la Agricultura (2005).

4. Activación comunitaria: fortalecer el papel de los agentes sociales y tejido asociativo local que trabajan aportando soluciones y mejoras a la gestión de las crisis alimentarias, estableciendo sinergias basadas en la innovación, la sostenibilidad y la resiliencia.

5. Buena gobernanza: promover la coherencia entre las distintas políticas públicas para la gestión de los riesgos globales, evitando arbitrar soluciones que, a la larga, refuercen las causas de las crisis.

Dichas acciones se realizarán en cooperación y coordinación con otras entidades locales articuladas en torno a la Red de Ciudades por la Agroecología, y con el apoyo de esta. La referencia operativa para su desarrollo está recogida en el informe *Sistemas agroalimentarios locales frente a riesgos globales: de la Covid-19 a la crisis climática*, presentado el 1 de octubre de 2020, con motivo del IV Encuentro anual de la Red de Ciudades por la Agroecología.

Los gobiernos locales que representamos se comprometemos a promover la adopción, en el corto plazo, de las propuestas recogidas en el citado informe, en coherencia con otros acuerdos, declaraciones y pactos ya suscritos, especialmente con el Pacto de Milán.